

**EUSKALDUNTZEARI BURUZKO
ZENBAIT GOGOETA**

I. Abiapuntua

Aspalditik jarraian aurrez aurre jarriko dizuedan gaiari buruzko gogoetak egitekotan izan nauzue. Egia esan barruan arantza modura itsatsita izan dut. Alorra luze eta sakon jorrazteko asmoa nuen arren, zenbait gertakari direla tarteko honako lerro hauetara mugatu dut.

Eta gogoetari hasiera, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako *Euskara biziberritzeko plan nagusia* liburuxkan, euskararen gaur egungo ahuleziak deskribatzean (IV.4.15, 41. orr.) datorena transkribatuz emango diot:

“Euskaldunen kopurua gehitzeak badakar, neurri batean, kalitatearen galera, erdararen kutsaduragatik bereziki. Bakoitzaren bizkera edo euskalkia zaintzeko eta hobetzeko ezer gutxi egiten da, besteak beste, eskoletako irakasleek eta euskara-irakasleek ez baitiete tokian tokiko bizkuntz erduei, euskalkiei eta abozkoari dagokien garrantzirik eskaintzen. Zuzentasun-egokitasun-jatortasun auzia, dena den, normal-kuntzaren menpe dago neurri handian.”

Orobat, euskara ondorengoetaratzeko gaurko haur eta gazteek izango duten garrantzia ikusita, ez zaio arreta handiegirik eskaintzen haur eta gazteentzat egiten diren liburu eta irakurgaietako euskarari. Kale-erdaran moda-modan jartzen diren hitz eta esaldiek ere ez dute euskarazko ordainik, eta barra-barra sartzen dituzte erdarazkoak euskaraz ari direnean ere. Beraz, plangintza behar da ahozko hizkeraren estandarizaziorako.

Hiztegiaren zenbait arazo konpontzeko, berriz, terminologi lana oso sakabanaturik dago: lehentasunak ere finkatzeke daude. Corpusha osatzeko eta hobetzeko egin den lana bera ere ez dago ikertzaileen eskuera, nahiz eta dena dagoen euskarri elektronikoan. Ez dago 16 urte arteko hezkuntzan erabiltzeko hiztegi arau-mailerik ere”.

Aurreko lerroek bide zabala eskaintzen didate hurrengo lerroetan aztertu edo, gutxienez, aurrez aurre jarri nahi ditudan gogoeta edo hausnarketei ateak irekitzeko. Azken aldian horri hemenka behin eta berriro aipatu izan den gaia aztertu nahi nuke, hain zuzen ere euskalduntze-alfabetatzearen arazoa.

2. Euskaldunak ugaritzeak dakarren arazoa

Euskarak, irakaskuntzan eta komunikabideetan mendeetan baztertuta egon ondoren oso epe laburrean egin behar izan ditu zibilizazio berriko zenbait alorretako bideak. Horrela buru-belarri eta arnasestuka jardun behar izan du gizarte modernoko abiadurari jarraitu ezinda.

Berezkoa da, beraz, guzti horrek hizkuntzarengan nahasmentuak eta itzalak sortzea. Eta ez bakarrik euskaldunberriek darabilten euskararen ondorioz. Txikitan berezko iturburuetatik euskararen esne gozoa edateko aukera izan genuenok ere, aldaketa sakonak izan ditugu etxean ikasitako gure euskararen, inguruko gizartea abiada bizian aldatzerakoan.

Edonola ere, aurrera egin aurretik aitortu beharra dugu izugarrizko ahalegina egin duela gure herriak, hau da, gure herriarrek ikastola, gaueskola, komunikabide eta abarren bidez euskarari zor zitzaion “tornua” ematen. Urrats guzti horiek eman ditugulako gaude gauden egoeran eta hori beste ezeren aurretik aldarrikatu beharra dagoela uste dut.

Aitortu beharra dut, baita ere, txunditurik ere utzi nauela behin baino sarriago komunikabideetan eta beste zenbait ekin-tzetan hainbat euskaldun berrik erabiltzen duten euskara ederrak. Sarritan, etxekoa lantzen ahalegin handirik egin ez dutenen lotsarako, jakina!

Euskara hain kolektibo handiari epe laburrean irakatsi beharrak, alabaina, ekarri du ondorio txarrik ere. Euskara mordoiloa ere hor dugu, ahalegin handiak egin dituzten arren, euskara ikasterik lortu ez dutenen artean. Hala ere, mintzaira mordoiloagoa (gaztelania) dugu ahaleginik inoiz egin ez dutenen edota ahalegin txiki batzuk egin ondoren etsita euskara alde batera utzi dutenena!

Guzti horren ondorio dugu, hain zuzen ere, gorago irakurritakoa “*Euskaldunen kopurua gebitzeak badakar, neurri batean, kalitatearen galera, erdararen kutsaduragatik bereziki(...). Zuzentasun-egokitasun-jatortasun auzia, dena den, normalkuntzaren menpe dago neurri handian*”.

Hori horrela, inguruko erdaldunak euskaratzeko erabilitako bideak eta lortutako emaitzak zehatz aztertu beharra dugu, euskararen geroari oinarri sendoak eskaini nahi badizkiogu, behintzat.

3. Euskalduntzea ezinbestekoa dugu euskararen iraupenerako

Euskal Herriko biztanleriaren gehiengo handia erdalduna izanik, ezinbestekoa dugu euskararen iraupenerako, bertako

seme-alabak euskalduntzea. Euskarak ezingo du iraun gizarteko alor guztietan lekua egiten ez badu. Eta leku hori egiteko nahitaezkoa da gizarteko maila guztietan gutxienezko euskaldunen kopurua izatea.

Egia da, bai, gune euskaldunak izan ditzakegula Euskal Herriko eskualde batzutan, baina, gizarte modernoan jendea hain higikorra izatean, eskualdeko mugetatik kanpora ateratzeko edota bertatik kanpo aurkitzen direnekin harremanetan jartzean erdarak nagusituko zaizkigu.

Hori horrela, gure artean irakaskuntza jarri dugu euskararen etorkizunaren oinarriko baliabidez. Hala ere, esperientziak erakusten du, gizarteko eragipen-zentroetatik kanpo den hizkuntzak ez duela etorkizunik. Eta oraingoan, gure gizartean bosterearen hariak nagusien eskuetan ditugu.

Haur-gazteek egingo dute, bai, gure herriaren etorkizuna, baina nagusiok baliabideak eta norabideak ongi bideratzen ditugun adinean. Irakaskuntza, beraz, neurri batean bakarrik izango da eraginkorra euskararen geroan. Irlandan eta gertatutakoa gerta daiteke gure artean ere! Gizartean euskarak ez duela benetako baliorik ikusten badute erdarak erabiltzera joango dute haur eta gazteek.

Lehen eta behin, gure buruari egin behar diogun galdera, beraz, ea zergatik ez diren euskaldun ateratzen gazteak irakaskuntza-prozesua bukatzerakoan dugu, hainbat haur eta gazte, txiki-txikitatik urteetan zehar ikastoletara joaten diren arren, ez direla guztiz euskaldun bihurtzen ikusten ari baikara.

Irakaskuntzaren porrotaz barra-barra dihardugun une honetan ezer gutxi esaten da euskararen porrotari buruz. Esperientziak erakusten digu, gainera, berau ez dugula gutxi batzuen gaixotasuna, hainbatena baino! Esperientzia horrek erakusten digu gure gazteak ez direla eguneroko bizitzan eus-

kara gaztelaniaren maila berean ezta antzekoan ere erabiltzeko gai egiten. Eta hori D ereduan ikasketak euskaraz egin arren. Zer esan B eta A ereduan ari direnei edota ikasgai modura ere euskararik ez dutenei buruz?

Gazteak eta euskalduntzea ezinbestekoa baldin badugu euskararen iraupenerako, arazo hau sakon aztertu eta irtenbi-deak bilatu beharra dugula uste dut. Egiten ari ote dira, egia-tan, gure agintariek beharrezkoak diren plangintzak goian esandako akatsak zuzentzeko? Abertzale batek ezin du ez-en-tzun egin honelako egoera larri baten aurrean.

Honetan, sarritan aurpegiratu digute euskaldunoi ezin dela inor euskara ikastera behartu. Behar bada, horrela izango da!!! Hori horrela onartuz gero, beste zenbait alorretan ere berdintsu jokatu beharko litzateke, ezta? Eta euskaldun batek erdara-rik ikasi nahi izango ez badu, zer egin? Ildo honetatik aurrera joez gero, etengabeki luzatuko litzaiguke galdera-katearen mu-turra.

Nire ustetan egokiago litzateke, euskalduntzean oztopo bai-no ez direnei jaramonik egin gabe, benetan euskaldundu nahi dutenei aparteko laguntza eskaintzea horretarako egin behar duten bide aldapatsu luzean. Aparteko neurriak hartu beharko lirateke, euskararen legean esaten dena betetzeko, hots, beharrezko irakaskuntza amaitzerakoan gazteak euskara jakitea lor-tzeko.

Horretarako oso komenigarri ikusten dut gurasoekin bat eginez haur-gaztetxoei eskolan ikasitakoa erabil dezaten zen-bait egintza eskaintzea. Hori dela eta txalogarri iruditzen zait erakunde batzuk “*euskara sustatu, zabaldu edo normalizatzeko egiten diren jardueretarako udalei eta udal erakunde loka-lei eta mankomunitateei dirulaguntzak ematea*. (BAO, 2003ko martxoaren 10eko 47. zk.)

4. Euskalduntze-alfabetatzean eginiko ahaleginen azterketa

Adinekoen euskalduntzeari dagokionez, bestalde, hainbatean gutxitu ei da, azken urte hauetan euskaltegietara euskara ikastera hurbiltzen den pertsonen kopurua. Honetaz zenbait datu objektibo eskuratu ahal izan ditugu Eusko Jaurlaritzak eskainitako datuen nahiz halakoak aztertzeko argitaratutako zenbait lanen bidez.

Gure inguruko erdaldunak euskalduntzen eta neurri apalago batean euskaldunak alfabetatzen eta euskalduntzen lan handia egin dugun arren, ez dirudi ahalegin horiei behar adineko etekinik atera diogunik.

Hori horrela, bat-batean, hainbat galdera dagozkit burura: bat ote datoz eginiko ahalegin horiek eta lortutako emaitzak? Ongi egin ote dugu inbertsioa? Aurrerantz ote goaz, benetan, ala gizarteak daraman abiada azkarrari erantzun ezinda?

Datuen arabera, badirudi moteldu egin dela neurri batean, bederen, Euskal Herri osoan euskararen aldeko zaletasuna. Jarrerei dagokienez ere aldaketa handia gertatzen ari da. Onartzen da, bai, neurri batean, Administrazioan eta lanpostuaz jabetzeko euskara-mailak ezartzea, baina gizarteko bizi-moduan ez da hainbesteko beharrizanik ikusten. Bestalde, esan bezala, euskararen geroa hainbatean haur-gazteei erakastean jarri dugula ematen du.

Nire ustetan, berandu baino lehenago honi buruz ere hausnarketa egin beharra dugu; egin-eginean ere arazoa aurrez aurre jarri eta zergatik ari zaigun hori gertatzen aztertu beharra. Euskalduntzean hainbesteko ahaleginak egin eta metodorik aurreratuenak erabili ditugun arren ez ditugu kasu askotan itxaroten genituen emaitzak lortu.

HABE sortu eta euskararen irakaskuntza goitik behera eraberritu eta arautu nahi izan zuenean akats batzuk ere egin zituela uste dut. Oraindik konpondu ez diren akatsak, gainera. Diru publikoa tantaka-tantaka ematearen trukean euskaltegiak eta eskolak goitik behera kontrolatu nahi izan ziren. Horren ondorioz eskola-modulu estuegiak eta ordutegi zorrotzeziak ezarri ziren. Horrek, bide batez, emaitza oso onak ematen ari ziren haurren gurasoentzat eratutako eskolak hondatzea ekarri zuen.

Urrats berri horiek, agian, asmorik ederrenaz eginak izango ziren, baina hainbat guraso euskara ikastera bultzatu beharrean uxatu egin zuen. Eta, era berean, adinekoen eskoletan izugarrizko aldakuntza sortu.

Lehen urteetan, adinekoe hutsik utzitako lekuak institutuetatik eta zetozen ikasleek bete zituzten. Aldaketa horiek, bestalde, akademia kutsu bat ere eman zien euskaltegiei. Baina, bizitzan finkotasuna lortuta duten adineko ikasleek eman ohi duten sendotasuna gutxitu ere bai. Geroago, krisialdia areagotu egingo zen, batez ere euskararen irakaskuntza egokiro antolatutako eskualdeetan, esaterako, Gipuzkoan. Ez, baina, lurralde horretan euskalduntze-alfabetatze premiarik ez dagoelako!!!

Euskalduntzeak badu, oraindik, leku premiarik bazterretan gure Euskal Herri erdaldundu honetan. Hori dela eta, alor honetan ahalegin handiagoak eta zuzenagoak egin beharra ikusten dut. Horretarako, alabaina, besteak beste, aldaketa batzuk ere beharko ditugu, ahaleginik txikienaz emaitzarik handienak lortzeko.

Euskalduntze-bidea hartzen duenari ibilbide aldapatsuan lagundu beharra dugu. Eta horrek gure irudimenak eta ahaleginak ongi bideratzea eskatzen digu.

5. Konponbide bila

Aurreko lerroetan esandakoak hala direlarik, heldu zaigu konponbide batzuk proposatzeko unea. Nik, besteak beste hurrengo hauek proposatzen ditut:

5.1. *Ordutegi malguagoak jarri beharra*

Ezin dira pertsonen egoera ezberdinak arautegi estu batzuetara mugatu. Dirulaguntzak jaso ahal izateko astean gutxienezko eskola-kopuru handia eskatzea, edota urtean nahitaez maila zehatz bat lortu behar izatea, sarritan euskararen irakaskuntzaren kaltetako izan da.

HABEK gorago aipaturiko egituraketa berria abiabidean jarri zuenean, lehen eta behin, hain onura ederrak ematen ari ziren haurren gurasoentzako eskola gehienak desagertzea ekarri zuen. Horrela euskararen etorkizunean hain garrantzi handia izango duen kolektibo zabala baztertuta geratu zen. Hainbatean, esan bezala, ordutegi estuegiak jarri zirelako. Ezinezkoa gertatu izan zaie hainbat gurasori euskara ikastera astean hainbeste ordu eskaintzea. Gehiegi eskatu nahi, non-bait, eta ondorioz itomena sortu!

Hori dela eta, beste hizkuntzak irakasteko hor-hemenka dauden akademietan egin ohi duten bezala, ordutegiak eta ordu kopuruak premien arabera antolatu beharra dago. Gutxienezko ordu kopurua jaitsi eta ordutegi malguagoak jarritzen ez baditugu, gogo eta ahalegin handienak ere hutsal gertatuko zaizkigu.

Erabili nahi izan den erritmo biziak, bestalde, badu beste akats bat ere. Sarritan, gure gizartean, ustekabeko gertakariak direla eta eskola joan ezinak ere gertatzen dira. Erritmoa handia denean, halakorik gertatuz gero, ikaslea berehala geratu ohi da atzeratuta eta aparteko ahalegin handia egin ezik eskoletako erritmoari jarraitu ezin eta bertan behera utzi beharrean.

Gutxienezko orduak (sei bat astean) jarri eta beste egun pare bat errekuiperatzeko jartzearen aldeko nauzue. Horrela, egun horietan, zailtasun handiagoa dutenak nahiz eskola-galtzerik izan dutenak erritmoari eutsi ahal izango liokete, eskolako ikasleen kopurua bera ere iraunkorragoa eginez.

Edonola ere, ezin ditugu geure buruak zuritu, jendeak ez duela euskararik ikasi nahi esanez. Haurrentzat D edo B ereduak aukeratu dituzten guraso gazte gehienek, nire irudiko, prest egongo lirateke aukera onak eskainiz gero, beren buruak euskalduntzeko ahaleginak egiteko. Aukera egokiak eskaintzean datza, bada, irtenbidea.

Zergatik ez azertu zentrorik zentro arazoa eta benetako irtenbideak aurkitu? Ez ote litzateke etorkizunera begira gazteengan egiten den inbertsio luze eta garestia alferrik erre beharrean, inbertsioari etekinik ederrena ateratzea? Zentroek, gainera, hainbat kasutan aukera hobekak izaten dituzte azpiegiturei dagokienez, halako eskolak egokiro antolatzeko.

Erronka handia, nonbait, agintarientzat. Berriztatu berri den Euskararen Aholku Batzordean adinekoren irakaskuntzan burubelari ibilitako hainbat aholkulari dituzenez, hausnarketa sakona egingo dutela itxaroten dut.

5.2. Gelako ikasleen kopurua (ratioa) gutxitu beharra

Honek ere, zer esanik ez eragin handia izaten du hizkuntzaren irakaskuntzan. Akademiek eta aspaldi jabetu dira honetaz. Hizkuntza eraginkortasunez irakatsi nahi izanez gero, ezinbestekoa izaten da ikasle kopuru mugatuekin lan egitea. Talde handiegiak alferreko talde gertatu ohi dira gehienetan. Eta hau ez bakarrik euskaltegietan. Ikastetxeetako geletan ere kontuan hartu beharko litzateke benetan haur-gazteak euskaldun nahi baditugu.

Beraz ezinbestekoa da geletako ikasleen kopurua edota “ratioa” deitua aztertu eta bide egokiagok hartzea. Kontua ez dugu ikasle asko eskoletan ibiltzea, ikasleei euskara ikasi dezaten erraztasunak eskaintzea baino.

Askotan inbertsiorik handienak egin ondoren, honelako gorabeherak kontuan izaten ez direlako erdipurdi geratzen zaizkigu ahaleginik ederrenak ere. Nire ustetan benetako euskalduntzea egin nahi bada, geletako ikasleen “ratio” (oraingo 10-13koa) hori gutxitu beharra dago. Hizkuntza bizi-bizirik irakatsi nahi bada ezinbestekoa gertatzen da talde txikiagoetan jardutea.

Euskara ikastea erabaki duenari hasten duen ibilbide neketu hori ahalik eta atsegina eta eramankorra egin behar zaio eta horretarako, gutxienez, ordutegi eta gelako talde egoiak eskaini behar zaizkio. Garrantzi handikotzat jotzen dut honela jokatzuz ibilbide hori erraztea.

5.3. Oinarrizko euskara bultzatu beharra

Behar bada, puntu hau gehiago lotzen zaio metodologiari. Eta horren ondorioz hor ditugu euskara ikasteko hainbat metodo ezberdin. Hala ere ezin dugu ahaztu gorago aurkeztu dugun testuko berbak: *Ez dago 16 urte arteko bezkuntzan erabiltzeko biztegi arau-mailerik ere.*

Egia esan, asko aurreratu da, bai adinekoen euskalduntzerako bai haur-gaztetxoentzako baliabide egokiak proposatzeko orduan. Hala ere azken urte hauetan akats handi bat egin dugula esatera ausartuko nintzateke. Egin-eginean ere ez dugu kontuan izan Euskal Herri euskalduna lortzeko ezinbestekoa dugula borondate oneko zenbait erdalduni euskararen gutxienezko maila irakasteko bideak eskaintzea.

Gaia hain larria izanik, honetaz Lino Akesolok bere idazki batean dakarrena gogoratu nahi nuke gogoetarako abiapuntu modura: *“Diñue Shakespeare’ek erabilli dabezala, munduko*

idazleen artean, itzik geyen. Eta onek zenbat erabili ebazala deritxatzue? 16.000 itz bakar-bakarrik-Onen urrengo Milton izan da itzik geyen erabili dabezan idazlea, eta Shakespeare'n erdiak baiño ez ebazan erabili. Gaurko jakitunek 4000 itzekaz naikoa ei dabe. (Euskal Esnalea 17(1923) 161-166).

Jakitunek kopuru hori erabiltzen badute, zertan ari gara? Ez duzue uste alor hau sakon ikertu beharra dugula? Eta ikertu ondoren, ondorioak atera eta praktikan jarri, metodologia egokien bidez euskara ikasi nahi dutenei eskatzen zaizkien ahaleginak leuntzeko edo hainbatean errazteko?

Honetan saio ederra egin zuen orain dela hogeita bost urte inguru Imanol Berriatuak Israel ebraiera bultzatzeko egiten ari zen ahaleginetan oinarrituta gure herritar erdaldunentzat ere oinarritzko euskara proposatuz. *Hitz egin* metodoaren inguruan *gidaliburua mailaz maila* (Oinarritzko euskara) ere argitaratu zen 1982an. Bertan planteamendu oso interesgarria egiten zen.

Baina, zoritxarrez, baztertu egin genuen bide hori, gure begien aurreko errealitateari muzin eginez. Hau da, begiak itxi eta ez dugu ikusi nahi izan hor izango ditugula, euskara barneko ñabardura eta guzti ongi ikastea lortzen dutenen hainbat euskaldunberrien inguruan maila apalagoan geratuko diren beste hainbat pertsona. Horiek ere beharrezkoak izango ditugu euskararen aldeko giroa eta euskal guneak sortzerakoan.

Eta jakina, gure herria bezalako herri erdaldundu batean ezinbestekoa dugu, euskararen gutxienezko ezagupen maila bat lortzeko, eguneroko bizitzan ezinbestekoak diren hitzak, esamoldeak, aditz-formak eta abar ongi aukeratu eta egokiro irakasten saiatzea. Eskola munduan ere bai.

Euskara zuzena baina mugatuagoa, eguneroko bizitzako premiei lotuagoa irakatsi beharra ikusten dut. Hain zuzen ere, bizi dugun egoera konkretuan euskaldunberriei euska-

raz bizitzea ahalbideratuko dien hizkuntza ezaguera maila egokia.

Honetaz orain dela 15 urte (1988) Adan King-ek zenbait lankideren laguntzak prestatu eta Europako Kontseiluak argitaratu eman zuen *Atalase Maila* liburua gogora etorri zait. Liburu horren sarrerean honako hauek irakur ditzakegu:

“Hizkuntza jakin batean moldatzeko pertsona batek bereganatu beharra duen gutxienezko maila definitu nahi da atalase-mailekin oro har. Ama-hizkuntzaz erdaldun diren herritarrek euskaraz halako neurri batean moldatzeko eskuratu beharko luketen gutxienezko euskara-maila zehazten lagun diezaguke beraz, besteak beste, azterlan honek.

Atalase-mailak hizkuntzen irakaskuntzarako ikusmolde berriak dira, nahiz eta ez diren metodo konkretuak: hizkuntzaren zatikatze berri bat dakarte, maila funtzional eta operatibo bati zuzendutako filosofia batean oinarrituz’

Ahalegin batzuk egin dituzte AEK-k eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak liburu horretan eskaintzen diren datuak gogoan hartuz bide berriak urratsen. Hala ere, hamabost urte iragan diren arren, ez da, nik dakidala, oinarrizko euskarara hurbiltzeko beste antzeko lanik egin.

Euskaraz, goiko testuan ageri zaigunez oraindik egin gabe dugu benetako oinarrizko hiztegirik, izen hori daramaten hiztegirik argitaratu baldin bada ere: *Ez dago 16 urte arteko hizkuntzan erabiltzeko hiztegi arau-mailerik ere.*

Gogoan hartu beharko dugu, beraz, ezin dugula ipinkiak jartzen jarraitu urteak alferreko edo erdialferreko lanetan iragan nahi ez baditugu. Oinarrizko lexiko hori kontrolatuta izateak izugarritzko bultzada emango lioke bai euskalduntzeari bai alfabetatzeari. Euskaldun guztioi eguneroko bizitzan eragozpen handirik gabe elkarrekin komunikatzeko aparteko tresna eskainiko liguke.

5.4. Komunikabideak euskalduntzearen zerbitzuan jarri beharra

Orain dela 22 urte Imanol Berriatuarekin Israelera hango hizkuntza egoera aztertu eta bide berri bila bidaia egin genuenean, argi ikusi genuen ez zela nahikoa hizkuntza ikasteko zentroetan jardunean orduak egitea. Ezinbestekoa zela, baita ere aparteko lagungarri batzuk eskaintzea.

Halakoen artean behin eta berriro aipatu zizkiguten komunikabideek (batez ere irrati, telebista eta egunkariak) prozesu horretan izan ohi duten eragin garrantzitsua. Euskal Telebista martxan jarri zenean, badirudi gogoan hartu zela han ikusitakoa, eta saio batzuk egin ziren euskara ikasten nahiz alfabetatzen ari zirenei zuzendutako programa batzuk prestatzen.

Gaur egun, alabaina, jaramon gutxi egiten zaio euskaldunberriari. Euskal Herriko hizkuntza egoera guztiz normalizatu-tzat edo jotzen dugu. Eta oso baliabide indartsuak esku artean izan arren ez diegu behar adinako etekinik ateratzen ez ditugulako hizkuntzaren zerbitzuan jartzen.

Helburutzat euskara bultzatzea eta indartzea duten baliabide horiek etekinik gutxi lortzen dute laguntzarik handiena behar duen kolektiboarengan, hots, euskara ikasten ari direnengan.

Beraz, alor hau ere hausnartu beharko genuke, euskalkiei beren lekua egiteko egiten ari diren saioen ondoan euskaldunberrientzako saio aproposak prestatuz. Internet ere baliabide oso erabilgarria dugu, eta aurrerantzean etekin on ugari eman ditzakeena.

Sarritan goi mailetara begira lan egiten dugu, eta gure herrian beheko mailako irtenbideak ere behar ditugu, guztiz euskaldundu ez diren kopurua oso handia delako eta halakoei aurrera egin dezaten bultzada eta baliabideak eman behar ditugulako.

Hemen dituzu, irakurle, sarritan nire kautan bor-bor izaten ditudan gogoeta batzuk. Konponbideak bilatzeko ardura dutenek euskararen zabalkunde eta finkapenerako lanari ekin diezaioten argitaratu ditut.

Patxi Uribarren Leturiaga